

## Alexei II

53.1.- a) Bi astronautek “Déjà vu” sentsazioa aipatzen dute. Norbaitek ba al daki esapide horren esanahia zein den?

*Irakaslearentzako oharra: ikasle bakar batek eman dezala horren azalpena talde handian. Amaitzean gainerakoei zerbait eransteko edo osatzeko aukera eman.*

b) Talde txikian erantzun galderei:

- Gogoratzen duzu horrelako sentsaziorik eduki izana?
- Zer sentitu zenuen?
- Horren azalpenik ezagutzen duzu?
- Honen inguruko liburu, pelikula edo dokumentalik ikusi edo irakurri duzu?

53.2.- Bi astronauten elkarrizketa entzun ondoren, erantzun beheko galdera hauei:

1. Zergatik galdetzen dio Tasiok Kevini nor den Alexei?
2. Zer ondoriotara iristen dira bi astronautak egoera arraroa dela ikustean?
3. Nor ari da Sarasolari deika estazio espazialeko sarreratik? Zer nahi du?
4. Zer erantzuten diote bi astronautek?
5. Zergatik daki Alexei kosmonautak euskaraz?
6. Zer erabaki dute Tasiok eta Kevinek?



## 53. atala: Taldean

53.3.- Dèjá vu sentsazioek, haluzinazioek, ametsek... joko handia ematen dute etorkizuna irudikatzeko, iraganera itzultzeko, eta abar. Zer uste duzu gertatuko dela Kevin eta Tasioren kasuan? Nola amaituko da beren haluzinazioa? Eztabaidatu taldeka eta idatzi denon artean istorioaren amaiera.

*Irakaslearentzako oharra: lotura hauek gaiarekin lotura duten film batzuen berri ematen dute. Ikasleek horien inguruan hitz egiteko aukera izan dezakete nahi izanez gero.*

<https://www.youtube.com/watch?v=oz1hv1u0DXc>

<https://www.youtube.com/watch?v=rvm7WMbXfeY>



## Transkripzioa. Alexei II (03:59)

T- Bere orbitatik desbideratu den asteroide baten berri eman zigutek Iurretatik...

K- Eta eraginik izango du Trebiñu II-n?

T- Ez zegok arriskurik, baina eraginik izango ote duen ez zegok jakiterik.

K- Inork aztertu al du asteroide horren grabitate-erakarpenak sortu dezakeen espazio-denboraren pertzepzio-eraldaketa?

T- Zertaz ari haiz?

K- Ez nago ziur, baina datu guztiak ikusita, datozen 48 orduetan Trebiñu II espazio-denbora ardatz berri batean sartuko da eta ondorioak ezezagunak dira.

T- Irudipen arraro samarra zeukeat, e?

K- Zer?

T- Ez zekiat. Solasaldi hau aurretik ere izan diagula sentitzen diat.

K- Bitxia da, nik ere sentipen bera daukat.

T- Déjà vu

K- Deja zer?

T- Déjà vu, aurretik bizi izandako zerbaiten errepikapena bizitzearen sentsazio hori.

K- Eta musika?

T- Hik ere entzun al duk?

K- Bai, gure solasaldiaren soinu-banda balitz bezala.

T- Gauza arraroak ari dituk gertatzen, Johnson.

K- Ni jada hasi naiz espazio-estazioaren algoritmo ezberdinak aztertzen eta gure gorputzen datu biometrikoak alderatzen.

T- Johnson, Alexei esaten badiat, zer datorkik burura?

K- Mir 8ko kosmonauta, Alexei, zure xake-laguna.

T- Beraz, ez huan ametsa. Hik ere hitz egin huan harekin atzo.

K- Bai, eta euskaraz hitz egin genuen gainera.

T- Egia duk, euskaraz, kosmonauta errusiar batekin euskaraz.

K- Gauza arraroak ari dira gertatzen, Sarasola.

T- Aber, azalduidak berriro, ez diat ongi ulertu-eta. Haluzinazioak?

K- Bai. Asteroideak bere grabitate-orbitan harrapatu eta gure garuneko konexio elektrikoei eragin die.

T- Eta horregatik haluzinazioak pairatzen gabiltzak?

K- Hori da, eta horrek esan nahi du azken 48 orduetan bizi izan ditugunak haluzinazioak izan direla.

T- Ez dizkiagula benetan bizi izan, alegia. Baina, orduan, zer egin diagu?

K- Ez dago jakiterik, zulo beltz batean egon dira gure biziak azken 48 orduotan.

T- Orduan, Alexei, ez duk benetan existitzen, haluzinazio bat duk.

A- Tovarich Sarasola, Tovarich Sarasola, Alexei deika, zuen estazio-espazialeko sarrera-moduluan nago.

T- Bai, klaro. Kaixo, Alexei.

K- Haluzinazioak irauten duela dirudi.

T- Azken hondarrak izango dituk, e?

A- Zertaz ari zarete hizketan? Ez dut ulertzen.

T- Jakina, nola ulertuko duzu bada, ez zara existitzen-eta!

A- Irekiko al didazu Estazioko sarrera-modulua, mesedez. Ez nago txantxetarako.

K- Bai, klaro eta aureskua dantzatuko dizugu nahi baduzu.

A- Ez dut ulertzen, benetan ari naiz. Ez zait oxigeno gehiegi geratzen.

**53. atala: Taldean**

T- Ez zaiola oxigenorik geratzen, hi, ... kar, kar, kar.

K- Katxondo bat zara, Alexei!

A- Honaino iristeko garraio-moduluko oxigeno gehiegi gastatu dut. Benetan, ireki mesedez.

T- Bueno, Alexei. Hi, haluzinazioarekin hizketan nebilek oraindik, Johnson. Hau duk hau, hau!

A- Hemen nagoela, zuen estazio-atean! Ireki!

T- Egia esan, oso benetakoak ziruditek haluzinazio hauek, e?

K- Bai, nik oraintxe hemen egongo balitz bezala sentitzen dut.

A- Irekiiiiii!!!!

K- Ez diogu galdetu euskaraz hain ongi nolaz egiten duen.

T- Aizu, Alexei!

A- Entzun dut. Gaztaroan Baskonian jokatu nuen saskibaloira eta bertan ikasi nuen. Ireki atea!

K- Joder! Haluzinazio bat izateko oso azkarra da aitzakiak bilatzen.

T- Bai, hobe diagu konexioa etetea eta ea gure onera itzultzen garen behingoz, e, bestela hau...

A- Ireki, kabroiak!

*Atzo eta gaurko ataletan inork Solaris pelikularekin parekotasunik topatu badu, aluzinazio bat izan da.*

## Erantzunak

### 53.2-

1. Egoera hori bera aurretik amestu egin duen edo ez egiaztatzeko.
2. Asteroideak bere grabitate-orbitan harrapatu eta beren garuneko konexioei eragin diela. Ondorioz, haluzinazio bat dela guztia.
3. Alexei ari zaio deika. Estazioko sarrera-modulua irekitzeko eskatzen ari zaie bi astronautei.
4. Haluzinazioaren parte dela uste dute, eta barre egiten diote jaramonik egin gabe.
5. Gaztaroan saskibaloiko Baskonia taldeko jokalaria izan zenean ikasi zuen euskara.
6. Konexioa etetea erabaki dute, beren onera lehenbailehen itzultzeko.